

2013-03-19 Hamaika Telebista

<http://www.youtube.com/watch?v=DwjkarTBP6Q>

2013-03-18 Euskal Telebista

<http://www.eitb.com/eu/bideoak/osoa/1289382/bideoa-mikel-laboa-katedra-aurkeztu-du-ehuk/>



# Laboaren arrastotik abiatuta

Mikel Laboa Katedra sortu du EHUK, «euskal artea eta folklorea sustatzea eta ikertzea» xede nagusizat hartuta

Gipuzkoako Aldundiak finantzatu du, eta Juan Kruz Igerabide izango du zuzendari

Juan Luis Zabala Donostia

«Euskal artea eta folklorea —berezik musika, dantza eta bertsolaritza— sustatzea eta ikertzea» izango du xede nagusi Euskal Herriko Unibertsitateko Mikel Laboa Katedrak, Iñaki Goirizelaia EHUKo errektoreak atzo, katedra horren aurkezpenean, adierazi zuenez. Juan Kruz Igerabide idazle eta irakaslea zuzendari duela, —eta Gidor Bilbao ikerlari eta irakaslea haren laguntzaile iraunkor lanetan—, Mikel Laboa arte berritzaile gisa ikertzeko eta hala Euskal Herrian nola nazioartean ezagutarazteko eta, oro har, arteen arloko ikerlanak bultzatzeko asmoz, doktorego bekak eta master amaierako diru laguntzak emango ditu EHUKo katedra sortu berriak, jardunaldiak antolatu, argitalpenak plazaratu, sorkuntza bultzatzeko diru laguntzak eman eta Mikel Laboa kantsormen lehiaketa antolatzeaz gain. EHUKen Donostiako campuseko Carlos Santamaria Zentroan izango du egoitza, eta Gipuzkoako Foru Aldundiak finantzatu du, 555.000 euroko laguntza batekin.

«Katedrak Laboak kulturaz utzitako arrasto ahaztezina hartu nahi du abiapuntu, eta artearen adar ugariak biltzen dituen zahaitz moduko bat osatu», Igerabidek azaldu duenez. «Lehen urtean, Laboa bera izango da katedraren gai nagusi, eta harekin batera lan egin zutenak inguratzen saiatuko gara, betiere unibertsitate giroak eskatzen duen ikerkuntza ikuspegiarekin. Hortik abiatuta, arte diziplina zenbaiten arteko elkarlana bultzatu nahi dugu, batik batik gutxi ikertuta dauden adarrak bultzatu».

Aurtengo udazkenean Laboari buruzko jardunaldi batzuk antolatu ditu Mikel Laboa Katedrak, eta haietako ekarpenak argitalpen monografiko batean pla-

zaratuko ditu 2014an. «Erakusketak ere antolatuko dugu, eta saiatuko gara atzerrira eramaten ere», komentatu du Igerabidek. «Ekintza artistiko bat antolatu nahian ere bagabiltza, baina aurrerago emango dugu horren berri zehatzago».

«Hemendik gutxira, arte arloko zenbait aditu elkarlanean jarri nahi ditugu eta ikerketa bideak sortu», gehitu dio horri guztiari Igerabidek. «Unibertsitatean gaudenez, tesiak eta master amaierako lanak bultzatu nahi di-




Arte diziplina zenbaiten arteko elkarlana bultzatu nahi dugu, batez ere gutxi ikertuak sustatuz»

JUAN KRIZ IGERABIDE  
Mikel Laboa Katedraren zuzendaria

tugu, hala Laboaren beraren nola arte diziplina gutxi landuen inguruan. Baina ez dugu ahaztu nahi kultura eta artea egileen eskutik datorrela; ikusle, entzule, ukitzaila, usaintzaile eta dastatzaileek bizi arazten dutela. Horiek gabe ikerkuntza zerbait hila litzateke».

Horrez gainera, arte sormena bultzatzeko diru laguntza batzuk ere eskainiko ditu katedrak, «betiere gerora ekintza horietatik ikerkuntza akademikoak bultzatzeko asmoz, praktika eta teoria uztartuz», Igerabidek azaldu duenez. Beste erakunde eta elkarte batzuekin lan egiteko asmoa ere badute, eta lehen kontaktak izan dituzte dagoeneko Etxepare Euskal Institutuarekin, Eresbilekin eta Kukai dantza taldearekin, besteak beste.

Mikel Laboak EHUKekin izandako harremana «luzea eta eman-korra» izan dela gogoratu zuen Goirizelaia atzo, katedraren aurkezpena egitean. «Bizkaiko cam-



Juan Kruz Igerabide eta Marisol Bastida, aurkezpenean, atzean Mikel Laboaren irudia dutela. JAVIER ETXARRIETA / EFE

pusko Leioako gunean, plaza batek haren izena du, eta 2010ean Mikel Laboa izena duen sortzaile gazteentzako lehiaketa sortu genuen. Horrez gain, Laboak EHUK emandako urrezko domina jaso zuen 2001ean, Jos Anton eta Jexu Artze anaiekin eta Benito Lertxundirekin batera».

## Bere gaien inguruan, lehena

«Ugariak dira EHUK sortu dituen katedrak, baina Mikel Laboa Katedra xede oso zehatz batzuekin sortu da, eta beste unibertsitate katedra batzuetatik bereizten dute xede horiek», Goirizelaia azaldu duenez. «Euskal artea eta folklorea —berezik musika, dantza eta bertsolaritza— sustatzea eta ikertzea du helburutzat Mikel Laboa Katedrak. Gai hauek aztertzen dituen EHUKo lehen katedra da, Laboaren bizitzarekin eta sorkuntza artistikoarekin bat egiten duena. Laboa, gauza guztien gaitetik, sortzaile bat izan zen, eta

bere katedrak bi ezaugarri ezberdin baina aldi berean osagarri bilduko ditu: Laboaren sorkuntza artistikoaren hedapena bultzatzea, eta, horrekin batera, gainerako euskal artistena; baina baita gure musikaz, dantzaz eta bertsolaritzaz ikerketa sendotzea nazioarteko proiektua bilatuz».

Mikel Laboaren lanari egindako «aitortza bat» da Mikel Laboa katedra, Marisol Bastidaren iritziz, eta horregatik eskerrak eman zizkien hala EHUKo nola Gipuzkoako Foru Aldundiko ordezkari. «Proiektu hau ondo gauzatzeari nahiko nuke», esan zuen Bastida. «Denok dakigun bezala, egoera ez da erraza, eta dirua neurrian eta ondo erabili behar da. Baina gasturik gabe ez dago aktibitate, eta aktibitate hau garrantzitsua da, nire ustez, funtsezkoa. Arteak bizitzen laguntzen gaitu, eta krisi garaietan ere bizitza da handiena, kantuak esaten duen bezala».

## Jose Luis Zabala soinu teknikaria gogoratu du Marisol Bastidak

➔ Jose Luis Zabala soinu teknikaria martxoaren 9an hil zen, 62 urte zituela, bihotzekoak jota. Haren heriotzaren berri eman zuen atzo Marisol Bastidak Mikel Laboa Katedraren aurkezpenean, eta doluminak igorri zizkien Zabalen senitartekoei. Lankidetzeta eta adiskidetasun estua izan zuten Mikel Laboak eta Jose Luis Zabalak, luzaz. Ez dok Amairu taldeko soinu teknikari izan zen garaian ezagutu zuten elkar biek. Fernando Larrukerteren batera, Zabalak grabatu zuen Ez dok Amairuren *Baga, biga, higa* sentikaria jasotzen zuten zuzeneko disko bikoitza, Urnietako saletarren eskolako aretoan egindako emanaldi batean.





# Euskal artea eta folklorea sustatuko du Laboa Katedrak

MUSIKARIAREN  
ONDAREA BULTZATUKO  
DU UPV/EHU-K

Jardunaldiak, ikertzaile sarea, kantu sormena eta bekak bultzatuko dituzte

MAIALEN EZQUERRO

DONOSTIA. UPV/EHU eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren arteko hitzarmenaren bidez bultzatuta, Mikel Laboa Katedra sortu dute. "Euskal artea eta folklorea, bereziki musika, dantza eta bertsoari buruzko sustatzea eta ikertzea du helburu", esan zuen atzo Iñaki Goirizelaia EHUko errektoreak.

Gaineratu zuenez, gauza guztien gainetik "sortzaile" bat zen Laboa eta katedrak bi ezaugarri bilduko ditu; batetik, Euskal Herriko sorkuntza artistikoaren hedapena bultzatuko du, eta bestetik, musikaz, dantzaz eta bertsoari buruzko ikerketa sendotzea nazio arteko proiektioa bilatuko du. "Kantuz sortu naiz eta kantuz nahi bizi, eta horrela bukatu kantuz har ditzen beti nitaz oroitzian". Horrela hasten zen Laboaren kantu bat eta Goirizelaiaren aburuz, Mikel Laboa gogoratze modurik onena izango da katedra.

Laboak EHUrekin edukitako harremana luzea eta emankorra izan zen, heriotzak eraman arren, eten ez den harremana. Gobernu Kontseiluaren erabakiz musikariaren merituak azpimarratu nahi izan ditu urteetan zehar. Horretarako, 2000. urtean EHUK musikariari urrezko domina eman zioten eta 2010. urtean Mikel Laboa sortzaile gazteentzako lehiaketa sortu zuten.

Goirizelaiaren esanetan, Laboaren kantuei esker musika tradizionala beste era batera "hartu, sentitu eta bizitzen" hasi zen gizarteak. Batetik, musika tradizionalaren berrinterpretazioa garai berrietara egokitu zuen eta bestetik, tradizio horretatik tresna bat sortzeko nahia zuen, sormena garatu ahal izateko.

Honen ildotik, Marisol Bastida Mikel Laboaren alargunak azaldu zuen musikariak hiru bidetatik egin zuela lan; "tradizio kanta zaharrak berreskuratzen, egungo poemak

musikatzen eta interpretatzen eta bere bide propioetik esperimentatzen". Bestalde, aipatu zuenez, katedra "ondo gauzatzea" nahiko luke, egoera erreza ez izan arren "funtsezko" aktibitatea delako eta "arteak bizitzen laguntzen duelako". Bastidaren aburuz, eta kantak dioen moduan, "Musikaririk gabe, nola biziko ginake?".

**LAGUNTZA** Kultura, euskara eta hezkuntzarako garai zailak dira baina Gipuzkoako Foru Aldundiak ekimen honen aldeko apustua egin du 555.000 euroko laguntzarekin. Martin Garitano Gipuzkoako diputatu nagusiak azpimarratu zuenez, Aldundiak ahalegin "berezia" egiten du euskal kultura eta ikerketa bultzatzeko eta kasu honetan bereziki, Laboaren lana "ikertu, hausnartu eta gizarteratzeko". Erantsi zuenez, "euskal kultura eta nortasuna gure aberastasuna da eta garapen ekonomikorako tresna gisa ulertu behar dugu". Halaber, euskal gizarteak kultura "abertasuna" duela aipatu zuen, baita ondare hori zaindu, sustatu eta jorrazteko bide berriak egin behar direla ere.

Katedra zuzenduko duen Juan Kruz Igerabidek azaldu zuen "kultura giza duintasunaren oinarri sendo bat dela" eta katedran Laboak utzitako arrasto ahazteazina hartu dutela abiapuntu. Katedraren ikergaietan interesaturik dauden ikertzaileen sare bat gauzatuko dute aurtun eta udazken aldera jardunaldiak antolatuko dituzte.

Mikel Laboari buruzko erakusketak bat eta argitalpen monografiko bat ere egingo dituzte, omenaldi gisa. Doktoreko-bekak eta master amalerako diru-laguntzak eta sormena bultzatzeko diru-laguntzak eskainiko dituzte, besteak beste. Horiekin batera, Mikel Laboaren kantu-sormen lehiaketa antolatuko dute eta musikariaren lana Euskal herritik kanpo ezagutzera emateko zenbait ekintza bultzatuko dituzte.

**"Laboari esker musika tradizionala beste era batera hartu, sentitu eta bizitzen dugu"**

IÑAKI GOIRIZELAIA  
UPV/EHUko errektorea



Igerabide, Goirizelaia, Bastida, Garitano eta Maseda. ARGAZKIA: RUBEN PLAZA



# EHUk euskal kultura ikertuko duen Mikel Laboa katedra jarri du abian

Gipuzkoako Aldundiak 555.000 euroko laguntza emango dio Euskal Herriko Unibertsitateari euskal kultura ikertu eta nazioartean sustatu dezan. Ildo nagusia Mikel Laboa izango da gure folklorea izan duen garrantziagatik eta

euskal kultura eredu bat delako, baina berarekin elkanean aritutako sortzaileak ere aztertuko dituzte. Era berean, disziplina desberdinetako egungo eragileen arteko lankidetzak ere bultzatuko dute sorkuntza abersatsagoa lortzeko.

Nagore BELASTEGI | DONOSTIA

Mikel Laboa Katedra martxan jarri du Euskal Herriko Unibertsitateak euskal kultura eta hondare ikertzeko asmoz. Sortzaile hori hautatu dute aztergaiarekin harreman handia duen gizona izan zelako. Hala, Laboak birizik zegoenean hasi zuen euskal arteak sustatzeko bidea jarraituko du unibertsitateak, batez ere gutxi aztertu diren gaiak garrantzia ematen, alegia, musika, dantza eta bertsoarritza.

Juan Kruz Igerabide dugu Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako ikerketa-bide honen zuzendaria. Honek, atzo goizean Donostiako unibertsitateko kanpusean egindako aurkezpenarekin azaldu zuen lehenengo urte honetan gehien bat ikerketa Mikel Laboaren figuran beran eta bere inguruan aritu ziren sortzaileetan zentratuko direla. «Ezinezkoa izango da dena ikerketa baina ahal duguna egingo dugu», aipatu du. Ikerlari talde bat osatuko dute eta kultur eragile desberdinekin elkarlanean arituko dira arte espresio desberdinen arteko harremanak sustatzeko, adibidez, Kukai dantza taldearekin, Etxepare institutuarekin edota Eresbil musika gordailuarekin. Era berean, master amaierako proiektuak zein tesiak aurrera eramateko beka eskainiko dituzte, eta baita sorkuntza bultzatu ere.

Azken helburua Euskal Herrikan kanpo Mikel Laboaren lana, eta bide batez beste euskal sortzaileena, ezagutzera ematea bada ere, bidean katedrak bestelako xedeak ditu. Esaterako, aurten kantu-sormen lehiaketa bat jarriko dute abian, baita katedraren inguruko webgunea informazio osatuarekin ere. Udazkenean begira, kantauroaren inguruko jardunaldiak eta erakusketa bat egingo dute, baita argitalpen monografiko bat prestatu ere 2014ean kaleratuko dena.

Marisol Bastida, Laboaren alarguna, ere aurpezkenean izan



Ekzerretik eskubira, Juan kruz Igerabide, Iñaki Goirizelaia, Marisol Bastida, Martín Garitano eta Amaia Maseda, aurkezpenaren ostean.

Andoni CANELLADA | ARGAZKI PRESS

zen. «Unea ez da erraza, baina gasturik gabe ez dago aktibitate, eta aktibitate hau funtsezkoa da arteak bizitza ematen digulako eta krisi garaian ere bizitza dagoelako», aipatu zuen hunkituta. Honek azaldu zuen bere senarra zenak hiru arlotan lana egin zuela batez ere: kanta zaharrak berreskuratuz, poema garaiak musikalizatu eta bere kabuz esperimentatzea.

## Laboaren pausoak jarraituz

Aldundiaren izenean Martín Garitano diputatu nagusia izan zen aurkezpenarekin. Honek adierazi zuen katedran egingo den lana Laboak berak hasitakoaren jarraipena izango dela euskal kulturaren arlo guztien sustatzaile moduan. Garitanoren esanetan, Laboak hizkuntzaren mugak gainditu zituen maitatzen zuen

hura bultzatzeko bidean. Katedra hau garrantzitsua dela dutelako, Diputazioak 555.000 euro bideratuko ditu funtsa honetarako, eta inbertsio moduan ikusten duela azaldu zuen euskal kultura «ekonomia bizkortzeko tresna» ere badelako, eta Laboak, finean, «Euskal Herriaren soinu banda» egin zuelako.

EHUtik Iñaki Goirizelaia errektoreak eta Amaia Maseda errektoreordeak hartu dute parte atzo goizeko ekitaldian. Lehenak, Aldundiari eskerrak eman zizkion bere laguntzagatik oinarritzakoa ikusten baitu. Era berean, abeslariak 2000. urtean unibertsitateko urrezko domina jaso zuenean esandakoa gogora ekarri zuen: «iraganeko oroitzapenek bertara eraman zutela esan zuen, eta bere oroitzapenengatik sortu dugu katedra hau».

## UNIBERTSITATEAREN OMENALDI BAT ABESLARIARI

Goirizelaia errektoreak azpimarratu nahi izan zuen laboak Euskal Herriko Unibertsitatearekin zuen harremana. 2008an abeslaria hil eta gero, harreman hori eten beharrean indartu egin da eta anitzak dira bere izenean martxan jarri izan diren ekimenak. Bizkaiko kanpusean egin dituzten obren ostean plaza bati abeslariaren izena jarri diote.

2010ean, ordea, bera omentzeko adierazpen artistikoko lehiaketa bat egin zuen unibertsitateak eta 76 lan jaso zituen. Sariak disziplina anitzetan banatu zituzten: euskaraz zein gaztelarazko idazkera testuentzat, arte plastiko eta ikusentzuekoentzat, eta bere abestien bertsoak egin zituztenentzat. Horrez gain, aipamen berezia egin zioten irakasleek eta ikasleek batera egindako argazki osatutako liburuari. EHU eta Laboaren harreman horren eredu da ere bai katedra berri hau, zeinek abeslariaren espiritua bizirik mantentzen saiatuko den. N.B.





## EDUCACIÓN

## La UPV pone en marcha la cátedra Mikel Laboa

La UPV y la Diputación de Gipuzkoa presentaron ayer la cátedra Mikel Laboa, un proyecto que tiene por objetivo impulsar la investigación y difusión internacional de la canción vasca, la danza y el *bertsolarismo*, según explicaron sus responsables. La Diputación financia íntegramente la cátedra con 550.000 euros, que también prevé la concesión de becas para alumnos que cursan un máster, la creación de una red de investigadores sobre disciplinas artísticas y la organización de unas jornadas sobre el artista el próximo otoño.



# Cátedra Mikel Laboa con aire internacional

Será dirigida por Juan Kruz Igerabide y contará con la ayuda económica de la Diputación

Este otoño habrá unas jornadas sobre el artista y una exposición, y está también en marcha una iniciativa artística

:: FELIX IBARGUTXI

**SAN SEBASTIÁN.** La Universidad del País Vasco ha creado la Cátedra Mikel Laboa, para investigar en los ámbitos de las artes y el floklore vasco. «Nace con el objeto de enriquecer el patrimonio intelectual, humanístico, cultural y científico de la sociedad vasca, en concreto para promover, investigar y difundir a nivel internacional la creación artística y

sus manifestaciones», según la UPV. El director de la cátedra es Juan Kruz Igerabide Sarasola, que en la actualidad trabaja en el Servicio de Euskerria de la UPV en Gipuzkoa y es profesor titular de la Escuela Universitaria de Enfermería de la UPV. Estará acompañado de un colaborador permanente, Gidor Bilbao Telletxea, quien a su vez es profesor en la Facultad de Letras.

La cátedra se ha creado a través de un convenio suscrito entre la UPV y la Diputación Foral de Gipuzkoa, quien ha aportado 555.000 euros.

En un principio, el propio Mikel Laboa (1934-2008) será el eje sobre el que gire la cátedra. Se ofertarán diversas becas, con objeto de dar a conocer la cátedra, además de investigar y profundizar en la figura del cantante como innovador artístico. «En

esta primera fase, nos pondremos en contacto con las gentes con quien colaboró Laboa. Al menos, con los que podamos y con los que estén disponibles. No será posible abarcar a todos, haría falta unas campas como las de Larraitx», comentó ayer el director Igerabide. Además, este año se creará una red de investigadores que estén interesados en los temas de investigación de la cátedra. El oto-



Igerabide (director de la cátedra), Goirizelaia (rector de la UPV), Marisol Bastida (viuda de Laboa), Martín Garitano (diputado general) y Amaia Maseda (vicerrectora). :: MICHELENA

## Amplia representación del mundo musical en el acto de presentación

La viuda de Laboa, Marisol Bastida, tuvo un recuerdo especial para con el técnico de sonido José Luis Zabala, fallecido hace diez días

:: F. I.

**SAN SEBASTIÁN.** En la presentación de ayer se congregó un grupo bastante numeroso de cantantes: faltaban los creadores de Ez Dok

Amairu –porque una parte de ellos ya ha fallecido– pero allí estaban **Antton Valverde**, **Ruper Ordorika** –compañero de Laboa en numerosos festivales–, **Xabier Montoia**, el acordeonista **Joxan Goikoetxea**, el pianista **Mikel Azpiroz** y el polifacético **Karlos Osinaga** –técnico de sonido de muchos grupos, cantante y guitarrista de Lisabö–. La viuda de Laboa, **Marisol Bastida**, se mostró muy afectuosa con este último. Ya se sabe que el cantante ahora homenajeado tuvo un especial predica-

mento entre la generación de músicos rockeros que podían haber sido sus hijos, y que estos jóvenes versionaron bastantes temas del antiguoatarrá.

También acudió una representación de la casa discográfica Elkar, la que trabajó con el músico donostiarra a lo largo de varias décadas. Entre otros, Elkar estuvo representada por **José Mari Sors** y **Josebe Ormazuri**.

Otro que no faltó a la cita es **José Luis Agote**, el hombre que diseñó

varios de los discos de Laboa. Igualmente, acudieron las dos hijas del pintor José Luis Zumeta: **Usoa** y **Monika Zumeta**. Como se sabe, ese pintor era amigo íntimo del homenajeado y elaboró bastantes portadas de sus discos. También estuvo **Iñaki Beobide**, el fundador de la casa discográfica Herri Gogoa, que en los años 70 editó algunas de las canciones de Laboa.

Otro de los presentes era el escultor de Alkiza **Koldobika Jauregi**.

Las representaciones institucionales eran numerosas. Por parte de la Diputación, estaba también presente la diputada de Hacienda, **Helena Franco**. El Ayuntamiento donostiarra estaba representado por la delegada de Cultura, **Nekane Txapartegi**. Otras caras eran la conceja-

la del Ayuntamiento **Miren Azkarate** y el líder del PNV en la Diputación, **Markel Olano**.

La viuda de Laboa, Marisol Bastida, acabó su intervención recordando a **José Luis Zabala**, un técnico de sonido que acompañó al homenajeado durante varias décadas, y que falleció repentinamente el día 9 en su pueblo de Zumaia.

También acudió a la presentación la hija de Mikel Laboa, **Agurtzane**, y una de las hermanas, **Eli**, las más jóvenes de las tres que aún viven. Las otras dos son **Karmele** y **Begoña**.

**Cadena de homenajes**

Mikel Laboa falleció el 1 de diciembre de 2008. De allí a pocos días se le ofreció un acto de despedida en el monte Agiña, junto al monumen-





**Vea el vídeo**  
escaneando con  
su móvil este  
código QR



ño se organizarán unas jornadas, con cuyos materiales el año próximo se publicará un volumen monográfico. Asimismo, este año se organizará una exposición sobre el artista, y la intención es llevarla luego a otros lugares fuera del País Vasco.

Asimismo, Igerabide comentó que «ya está en marcha una iniciativa artística, pero daremos los detalles en fechas posteriores».

En su discurso, el director de la cátedra hizo una defensa radical de la cultura: «La cultura es una de las bases de la dignidad humana. No lo olvidemos. Se dice «primero el comer, luego la cultura», pero sin cultura no hay nada que comer, porque las maneras de sobrevivir, las maneras de conseguir los alimentos, las maneras de cobijarnos, no son más que consecuencia de una cultura humana desarrollada a lo largo de miles de años. No lo olvidemos. Sin cultura no hay supervivencia, no hay ser humano. No lo olvidemos».

La presentación de ayer se desarrolló en el campus de la UPV en el barrio donostiarra de Ibaeta. Arrancó con un discurso del rector de la universidad, Iñaki Goizelaia, quien agradeció la colaboración de la Diputación: «Sin esta ayuda económica, la cátedra no hubiera sido posible». Goizelaia cerró su intervención con las palabras de una de las canciones de Laboa, que en realidad son del bertsolari ipartarra Joxe Mendiage: «Kantuz sortu naiz eta kantuz nahi bizi» (Naci cantando y quiero vivir cantando).

El rector Goizelaia dijo que «el rastro imborrable que ha dejado Mikel Laboa en Euskal Herria demuestra a las claras hasta qué punto un artista puede conjuntarse con un pue-

blo y hasta qué punto la obra del artista puede servir para interpretar el alma de un pueblo».

Goizelaia manifestó que es la primera vez que una cátedra de la UPV vaya a investigar en torno a las artes y el folclore vascos, «en particular la música, la danza y el bertsolarismo» y recordó que esta universidad entregó su medalla de oro al artista en el año 2000, que existe una plaza que lleva su nombre en el campus de Leioa y que en 2010 creó un premio para creadores jóvenes que lleva también ese nombre.

Por su parte, el diputado general Martín Garitano dijo que esa presentación era «algo muy especial, dado que Mikel era mi amigo». Según la máxima autoridad de la Diputación, «Mikel Laboa fue un euskaldun abierto al mundo y de espíritu renovador. Trabajó en torno al euskera y al folclore con un planteamiento amplio. Fue un modelo para nuestro pueblo. Y conocido y referente también para los no euskaldunes».

#### Un buen uso del dinero

La última en tomar la palabra fue la viuda de Mikel Laboa, Marisol Bastida. «Esto es un reconocimiento al trabajo de Mikel, y doy las gracias. Ya se sabe que trabajó en tres campos: re-interpretando el cancionero tradicional; poniendo música a los poemas de los literatos contemporáneos; y desarrollando su propio campo experimental», prosiguió. Asimismo, dijo que «el dinero de esta cátedra se debe emplear bien y en su justa medida».

Juan Kruz Igerabide Sarasola nació en Aduna en 1956. Su faceta más conocida es la de escritor. Ha cultivado campos tan diversos como los aforismos (tiene varias recopilaciones publicadas), la poesía para niños y la narrativa, tanto infantil y juvenil como para adultos. Ejerció de maestro de educación primaria y de bachillerato, y es doctor en Filología Vasca. Tras unos años como profesor de la UPV –es profesor titular de la Escuela Universitaria de Enfermería– en la actualidad trabaja en el Servicio de Euskera de la UPV y ha sido también responsable del servicio de consultas lingüísticas EHULKU.


### «La obra de este artista puede servir para interpretar el alma de un pueblo», dijo el rector Goizelaia



Agote, Laboa, Zumeta, el recién fallecido Zabala y Salvador, en 1997.

to al Padre Donostia. Ese mismo diciembre la Diputación le otorgó la medalla de oro de Gipuzkoa. En 2009 se le dio la medalla de oro de

San Sebastián y se editó un libro-DVD en su memoria. Usurbil le dedicó una plaza y el Antiguo un marcfestival.



## La cátedra Mikel Laboa contribuirá a internacionalizar el folclore vasco

Creada por la UPV, ha recibido 555.000 euros de la Diputación de Gipuzkoa

DONOSTIA. La internacionalización del folclore vasco, en especial de la música, la danza y el bertsolarismo, es uno de los retos de la cátedra Mikel Laboa, creada por la Universidad del País Vasco (UPV) y que ha sido financiada con 555.000 euros por la Diputación de Gipuzkoa. La iniciativa fue presentada ayer en Donostia por el rector de la UPV, Iñaki Goirizelaia, el diputado general de Gipuzkoa, Martín Garitano, la viuda de Mikel Laboa, Marisol Bastida, y el director de la cátedra, Juan Kruz Igerabide. Garitano afirmó que Laboa era "vasco, abierto al mundo, renovador, amigo de los jóvenes e impulsor del futuro", unos valores que la cátedra impulsará. Entre las actividades que se promoverán figuran la oferta de diversas becas para profundizar en la figura de Laboa como innovador artístico así como el fomento de trabajos de investigación en el ámbito de las artes. También la concesión de subvenciones a la finalización del máster a través de convocatorias públicas con objeto de investigar diferentes ramas artísticas como la plástica, la música o la danza. En otoño se organizarán unas jornadas sobre Laboa, con una exposición sobre el artista y una edición monográfica de su figura. Asimismo, se prevé la organización de un certamen de creación de canciones Mikel Laboa así como de diversas acciones para dar a conocer al artista fuera de la CAV, y la creación de una red de investigadores interesados en los temas de la cátedra. >EFE





## La cátedra Mikel Laboa contribuirá a internacionalizar el folclore vasco

Creada por la UPV, ha recibido 555.000 euros de la Diputación de Gipuzkoa

SAN SEBASTIÁN. La internacionalización del folclore vasco, en especial de la música, la danza y el bertsolarismo, es uno de los retos de la cátedra Mikel Laboa, creada por la Universidad del País Vasco (UPV) y que ha sido financiada con 555.000 euros por la Diputación de Gipuzkoa. La iniciativa fue presentada ayer en Donostia por el rector de la UPV, Iñaki Goirizelaia, el diputado general de Gipuzkoa, Martín Garitano, la viuda de Mikel Laboa, Marisol Bastida, y el director de la cátedra, Juan Kruz Igerabide. Garitano afirmó que Laboa era "vasco, abierto al mundo, renovador, amigo de los jóvenes e impulsor del futuro", unos valores que la cátedra impulsará. Entre las actividades que se promoverán figuran la oferta de diversas becas para profundizar en la figura de Laboa como innovador artístico así como el fomento de trabajos de investigación en el ámbito de las artes. También la concesión de subvenciones a la finalización del máster a través de convocatorias públicas con objeto de investigar diferentes ramas artísticas como la plástica, la música o la danza. En otoño se organizarán unas jornadas sobre Laboa, con una exposición sobre el artista y una edición monográfica de su figura. Asimismo, se prevé la organización de un certamen de creación de canciones Mikel Laboa así como de diversas acciones para dar a conocer al artista fuera de la CAV, y la creación de una red de investigadores interesados en los temas de la cátedra. >EFE



# Euskal artea eta folklorea sustatuko du sortu berri den Mikel Laboa Katedrak

Egitasmo ezberdinen bidez, musikariaren ondarea zabalduko du Euskal Herriko Unibertsitateak

MAIALEN EZQUERRO/E. PRESS

DONOSTIA. Mikel Laboak badu bere katedra. UPV/EHUK eta Gipuzkoako Foru Aldundiak sinatutako hitzarmenak ahalbidetu du oraingo hau. "Euskal artea eta folklorea, bereziki musika, dantza eta bertso-larritza sustatzea eta ikertzea du helburu katedra honek", agertu zuen atzo aurkezpen ekitaldian Iñaki Goirizelaia EHUKo errektorea. Goirizelaia berak gaineratu zuenez, gauza guztien gainetik "sortzaile" bat izan zen Laboa, eta ideia horri eutsiz bi ezaugarri izango ditu katedrak: batetik, Euskal Herriko sorkuntza artistikoaren hedapena bultzatuko du; eta, bestetik, musika, dantza eta bertso-larritza-ikerketak sendotu nahi ditu, batez ere nazioartean. Horrela adierazten da, baita, katedra berriaren estatutuetan: "Euskal gizartearen ondare intelektual, humanistiko, kultural eta zientifikoa aberastea, bereziki arte-sorkuntza eta adierazpenei dagokien alorra sustatu, ikertu eta nazioartean zabaltzeko nahiz arteen ikerkuntzan diharduten erakunde eta pertsonekin elkarlanean euskal arte historikoa nahiz garai-kidea jorratzeko" sortu dela.

EHUKo Donostiako campusean aurkeztu zen atzo katedra, Iñaki Goirizelaia EHUKo errektorea, Martin Garitano Gipuzkoako ahalidun nagusia, Mikel Laboaren alargun Marisol Bastida eta Juan Kruz Igerabide Katedraren zuzendaria bertan zirela. Mikel Laboaren eredu erdigune izango da katedraren helburua lortzeko bidean, eta "arteen artekotasunaren eta euskal folkloreaken zenbait ildo ikertuko dira", betiere ikerturik ez dauden arloak bultzatzen saiatuz. Goirizelaiaren esanetan, Laboaren kantuei esker musika tradizionala beste era batera "hartu, sentitu eta bizitzen" hasi zen gizartea. Batetik, musika tradizionalaren berrinterpretazioa garai berrietara egokitu zuen, eta, bestetik, tradizio horretatik "tresna bat sortzeko nahia zuen, sormena garatu ahal izateko".



Juan Kruz Igerabide idazlea, Marisol Bastidarekin (Mikel Laboaren alargunarekin). ARGAZKIA: EFE

Honen ildotik, Marisol Bastidak (Mikel Laboaren alargunak) azaldu zuen musikariak hiru bidetatik egin zuela lan: "tradizio kanta zaharrek berreskuratzen, egungo poemak musikatzen eta interpretatzen eta bere bide propioetik esperimintatzen". Bestalde, katedra "ondo gauzatzea" nahiko lukeela aipatu zuen, bere iritzi "arteak bizitzen laguntzen duelako". Bastidaren aburuz, eta kanta ezaguna gogoratuz, "Musikari gabe, nola biziko ginake?".

Katedraren zuzendaria Juan Kruz Igerabide idazlea izango da, eta laguntzaile iraunkorra, berriz, Gidor Bilbao. Egoitza EHUKo Carlos Santamaria Zentroan dago, Donostiako campusean bertan.

**"Laboari esker musika tradizionala beste era batera hartu, sentitu eta bizitzen dugu"**

IÑAKI GOIRIZELAIA  
UPV/EHUKo errektorea

Doktore-bekak eskainiko dira katedra berria ezagutzera emateko, eta, horrez gain, Mikel Laboa arte-berritzaile gisa ikertzeko eta ezagutarazteko nahiz arteen arloko ikerlanak bultzatzeko, eta, orobat, master-amaierako diru-laguntzak, deialdi publikoen bidez, plastika, musika, hitza, dantza eta beste zenbait alor artistiko ikertzeko eta elkarriketan jartzeko erabiliko dira. Aldi berean, sorkuntza bultzatzeko diru-laguntza berezi batzuk ere eskainiko dira, eta, horiekin batera Mikel Laboa kantu-sormen lehia-keta antolatuko da. Udazken aldera Mikel Laboa jardunaldiak antolatuko dira, abeslariari buruzko erakusketa bat eta berari buruzko argitalpen monografiko bat. Katedraren webgunea ere jarriko da abian.

Gipuzkoako Aldundiak ekimenaren aldeko apustu garbia egin du, 555.000 euro eskainiz proiektuari.